

Aitziber Pz. de Karkamo | ARAMAIO

# Seme-alabak maitatzea eskubide

**SENIDEAK.** «Sufrimenduak» eta «seme-alaben alde borrokatzeak» elkartu ditu Maiatzeko Plazako Amak eta Etxerat-eko kideak



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Josune Irakulis, Evel Petrini, Hebe de Bonafini eta Pepi Gorostidi, atzo Aramaion egindako solasaldian.

Argentina diktaduran desagertutako amak 1977ko apirilaren 30ean Maiatzeko Plazara aurrenekoz joan zirenetik 25 urte igaro dira. Seme-alabak desagertuta izatearen minari, amen mugimenduak pairatu duen zapalkuntza gehitu behar bazaio ere, euren seme-alabek aldarrikatzen zuten borrokari eutsi diote.

Senideak preso, ihesean edo erbestean izateak dakarren sufrimenduak batu ditu Etxerat elkartearen diharduten familiak. Batasun horrek ematen die indarra pairatzen duten «zigor gehituari» aurre egiteko.

Senideen eskubideen alde aritzeak elkartu zituen, atzo, Maiatzeko Plazako Amak taldeko Hebe de Bonafini eta Evel Petrini Etxerat-eko Josune Irakulis eta Pepi Gorostidirekin, Aramaion (Araba), Argentina eta Euskal Herria bildu zituen bazkarian.

Maiatzeko Plazako Amen lehendakari De Bonafinik urteetan igarotako une latzak gogoratu zituen. «Gogorrena senideak itzuliko ez direla onartzea da; baina min horrek bultzatzen zaitu aurrera segitzera». Gorostidiren aburuz, «sufrimendua» da seme-alaben alde egiteko «grinaren pizgarria, urrats bat egitean, zigorra gogortzen saiatzen badira ere».

## «Nork baztertu seme-alabak?»

Desagertzeak, tortura, erbestea edo sakabanaketa, errepresalia-

tuen senideek jasan beharreko «zigor gehitua» dira. «Gure seme-alabak eta gu terroristatzat jotzen gaituzte», esan zuen Irakulisek, baina «senideok dena

egingo dugu haien alde». De Bonafinik erantzunik gabeko galdera bota zuen: «Nork baztertu du bere seme-alaba?». Etxerat-eko kideek eta Maiatzeko

Plazakoek «eskubidetzat» jotzen dute euren senideak «maitatu, laztandu eta haien alde borrokatzea, eta inork ezin du urratu eskubide hori».

## HEBE DE BONAFINI

Maiatzeko Plazako Amen lehendakari

«Euskal Herrian torturak eta sakabanaketak irauten duten bitartean, ez dago demokraziarik»

## PEPI GOROSTIDI

Etxerat-eko kidea

«Mila kilometro egin ostean bisita debekatzen dizutenean, borrokatzeko grina pizten zaizu»

Hebe de Bonafinik orain urtebete bere alaba torturatu zutela gogoratu du, esku artean Torturaren Aurkako Taldeak plazara-tutako liburuari eusten zion bitartean (iaz torturatuak izan ziren euskaldunen testigantzak jasotzen ditu). «Tortura eta sakabanaketa dauden bitartean, Euskal herrian demokraziarik ez dago», nabarmendu zuen, «ez alderdi bat legez kanpo utzi eta egunkari bat itxi duten herri!».

Borroka gogorra dela aitortzen badute ere, bidean une «eder asko» bizi izan dituztela esan zigun Irakulisek. «Gauzarik ederrenetakoa daukazun seme-alabak nolakoak diren jakitea da», esan zuen harro Petrini. Seme-alabak eta jende askok haiekiko erakusten duen «elkartasuna» da ama eta senide hauen borrokaren arrazoi.

## TORTURA. Ermutik eta Mutrikutik abiatu ziren bi zutabeak



JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

## Torturaren aurka Elgoibarren

Torturaren aurkako ekitaldia egin zuten, atzo eguerdian, Elgoibarren (Gipuzkoa), osiralearan Gipuzkoako hainbat herritan torturaren aurka egindako mobilizazioen jarraipen gisa. Mutrikutik eta Ermutik abiatutako bi zutabek Elgoibarren bat egin zuten, *Torturari Stop* leloa zeraman pankarta aurrean zutela. Euskal presoak Euskal Herriratzeko aldarrikapena ere egin zuten, Elgoibarko Maalako parkean egindako ekitaldian.

## BATASUNA. Ekintza sinbolikoa Basusarriko golfean



GAIZKA IROZ

## Etxeen eta lurren prezioak salatu dituzte

Batasuneko hogeit bat kide Basusarriko golfaren aurrean bildu ziren, atzo goiz bukean, etxebizitzaren eta lurren prezioen salatzeke. Azken urteetan, Basusarriko biztanle kopurua % 54 igo dela salatu zuen, eta etxe kopurua, % 93. Gazteek Euskal Herrian bizitzeko erraztasunak behar dituztela aldarrikatu zuten, bidegurutzean ezarri pankartan. Hauteskunde kanpainaren baitan, *Demokrazia Euskal Herriarentzat* bozkatzeko deia egin zuten, golfaren bazterrean afixa batzuk ezarrita.